EUSKALERRI GUZIKO ORKESTA

Zezili Donearen egunak, urtero, gure kantari ta abestalde ta erestaldeak beren jaia ospatzen jartzen ditu. Euskalerrian, bai elizetan, eta bai andik kanpora musikak gogozaletu asko du. Au, bai jakintza saillari dagokion aldetik, eta bai Eskualdetzak edo rejionalismoak sortzen digun premiaren aldetik, oso gai aitagarria da.

Mundu guzian erdi-joerak atzerakada aundia egin du gure egunetan. Ikusi bestela, Txekoslobakian eta Frantzian zer gertatzen ari dan. Indarra ta Gobernu-lanak nazioaren erdian bildu bearrean, alderdi ta eskualde bakoitzari eman nai zaizkio orain eskubide oien zatiak. Baiña goazen musika saillera...

Gaur arte orkesta-kontu au Madrid eta Bartzelona'n bildua izan degu. Valentzi ta Bilbo'ko orkesta alde batera utzi ezkero, beste probintzietako orkestak, oso alde aundia dute Madrid eta Bartzelona'ko orkestekiko. Auek Gobernuaren laguntzari eskerrak, aukera asko izan dituzte, baiña besteak, alako aukerarik gabe, larri ta eskas bizi izan dira. Onela, Espaiñia'ko url ta erri geienak, beren alegiñetan, erbesteko kantari bakar eta Kamara-Orkesta batzuen laguntzaz lan egin bear izan dute; ta beti oso erdi-ipurdikoa izan da auen lana.

Orregatik, eskualde edo lurralde bakoitzean orkesta batuak sortu bear lirakela, uste degu. Batez ere,guretzako, Euskalerri osoko orkesta batua nai genduke. Emen Naparroa, Araba, Bizkaia ta Gipuzkoa'ko musikalari guziak ikusi nai genituzke batean bilduak. Onela, orkesta on bat antola diteke. Eresbatz onek illero bere joaldiak eskeiñi dezakiguke Bilbo, Iruña, Gazteiz eta Donostia'n. Beste erri nagusi batzuetan ere, bere ertia entzunarazi dezake. Auxe da gure ustez, alde guzietan orkesta bikaiñak sortzeko bide bakarra. Lau alderdi oien laguntzari eskerrak, askoz errezagoa izango litzake, nai degun millara iristen.

Ori, gure alderdiari begira escan deguna. Baiña gurean nai deguna, berdin zabalduko genduke gure borondatez, beste eskualdetara. Orrela, antola ditezke Galizia'ko Orkesta,Andaluzia'koa, Gaztelerrikoa ta abar. Auxe ez al da, gure musika-bizitza jasotzeko biderik egokiena? Ta bide batez, orain arteko erdi-aldeko lana, alde guzietara eramango genduke maillarik gorenean.

Gobernuak, diputazioak, Aiuntamentuak eta aberats jendearen laguntzak batuta, noski, gure egitekoa bere ondoren ederrera eraman diteke. Era ontan, bi eragin batera aurrera eramango genituzke: ertiaren zabalkundea eskualde guzietara eramanaz lenbizi; ta musikaren bikaintasuna erri arruntari eskeiñiaz urrengo.

GURE GIPUZKOA

Egiya esan, ez nuan emen idatzi nai Luis Pedro Peña-k eskribitutako liburuetzaz. Liburu onek itzaurrea nerea bait dauka. Onek ixil egotera beartzen ninduala pentsatzen nuan.

Bañan lengo batian egillea bera etorri zitzaidan bere liburuaren alde artikulu baten eske.

Liburuaren egilleak bere idazkiaren propaganda nai izatea oso legezkoa deritzait. Eta baietz agindu nion.

Liburu batek goratzea merezi badu, diña da benetan Luis Pedro Peñak, Gipuzkoako tokirik ikzutuenak ikus-araziaz atera duan liburu apain, benetan dotoreak.

¿Gure erriaren txokoak ezagutzen al-ditugu? ¿Gure erriaren txoko erakusgarri oiek aditzera emateko gai izango al-giñake? Ontan, ¿ez al-gaude asko ikasi bearrean?

Urrutiko errien ta lurraldeen umetxuari erakusten alegintzen gera. bañan, gure inguruko txokoekin nik ez det ikusten orrelako leia, eta ezdu gutxiagorik ere.

Begiratzen dakianantzat, nun nai, asko ibilli gabe daude ikusgarriak, eta ikustaldi guziak daukate bere kondaira berezi tu izkutua.

Begiratzen jakin bear, orixe. Gauzak gure begirasunen zai-zai daude. Eta gero galdetu, galdetu bearra baldin badago, txoko bakoitzari bere izkutatutako sustraiak obeto agertuarazteko.

Luis Pedro Peña-ren liburua —Guipúzcoa olvidada—, *idiki edozein orri alditan. Etxetik irten gabe, ibillaldi ederrik asko egin dezakegu.*

Gaur egunian ¿bai ote beste bat Luis Pedro Peña-k baño obeto Gipuzkoa ezagutzen duanik? Zailla benetan ori gertatzea.

Bere liburua lagun detala, bere argibideak bitarteko dirala, makiñabat orraindik ezagutzen ez ditudan txoko politak irudimenez ezagutu ditut.

Beste toki ezagun asko, Luis Pedro Peña Santiago-k berritu egin dizkit.

¡Geiago iritxiko ez naizen txokoak!

Bañan emen dauzkat esku tartean donostiar idazle gazte eta trebeak egindako liburuari graziyak. Bere estiloan liburu paregabea benetan.

¡Gure Gipuzkoa biotzekoa! Zearo ondatzen ari zaigun une onetan, betoz zorionean Peña-ren liburu antzekoak.

Biyarko gipuzkoarrak izan dezatela beintzat sasoi bateko Gipuzkoaren irudi berezia.

Gaur egunian, berrogei tu amar urte buruan, lenago bosteun urtean baño aldakuntza geiago dira.

Aldakuntzak derrigorrezkoak bear badute, izan ditezela aldanguzian gure benetako izaeraren leialtasun oso-osoan.

José de Artecha

SCHUT THE DOOR

Brusela'ko erdian liburutegi on bat.

Sarrerako atean, frantsesez, hau: «Fermez la porte, s. v. p.». Beherago, pinturaz erantsia, «Schut the door». Inglesera txarrez beraz, «hets ezazu atea»; txarrez, diot, «shut» baita hitza, eta ez «schut». Flamenkeraz? Arrastorik ez. Ingleseraz eta frantsesez.

Bruseldar askoren jokabidean, flamenkerazko deitura dutenen jokabidean hain zuzen oso maiz, flamendarrekiko gorrotoa eta mespretxua agiri dira. Liburutegi hortara sartu ezkeroz, nola ez minduko flamendar bat? Zer da Brusela: belgikar guzien hiriburua, ala waloniarrena bakarrik? Zein da flamendarren hiriburua?

Hauxe da gaur Brusela'ko giroaren ezagugarri bat. Belgikar sendimendua gainbehera doa erresuma guzian; eta hiriburuan, teorian bi herrien egokiera-leku izanik, nabarmen dago tirabira. Brusela'n ezagun da ongienik (eta Lobaina'n, jakiña) Belgika'ko kinka gaistoa.

Jakiña danez, Brusela'ko letreroak bi hizkuntzetan emanak dira beti: Bruxelles-Brussel; Mons-Bergen; Lieje-Luik; Anvers-Antwerpen; eta abar. Eten gabe, urtean ez daki iñork zenbat aldiz, letreroak berritu beharra dago. Gehienetan, flamenkerazko hitza ezabatu ohi dituzte «frankofono»ek gauez, frantsesezkoa soillik utzirik; handik egun batzutara, astronomiako legeetan bezin ziurki, flamendarren gau-komando bat etorri, eta frantsesezkoa ere ezabatu. Batzutan alderantziz, gutxitan nik uste. Panelak, dana dala, kendu eta trukatu arte, bidea aurkitzerik ez: ez bata eta az bestea.

Brusela'ko hiria flamenkerazko eskualde batean dago. Hau dala-ta, bertako asko (300.000 bat, batez ere Iparraldeko eta Mendebaldeko hauzoetan) eta inguruetako denak, baita Hegoaldekoak ere (Beersel, Rhode, Linkebeek, Overijse, eta abar) flamenkeraz ari dira; eta legez flamenkera da bertako hizkuntza ofiziala. Soignes'ko Oihana, Brusela'ko Eegoaldean, flamenkerazko barrutian dago; baiña baita hirian bertan ere. Aspaldidanik, Oihaneko letreroak frantsesez zeuden (orain dala 50 urte hein batean, eta orain dala 100 urte areago, frantsesa baitzan administrazioaren hizkuntza). Letrero horiek guziak flamenkeraz jartzeko asmoa betearazi dute flamendarrek aste hauetan; eta, Brusela'n fama danez, flamenkerara itzultzeko modurik (?) ez zegoen letreroak, kendu egin dituzte, eta kitto. Igandero pillota galtzen omen dira basoan «frankofonoak»...

Lobaina'n gauzak ez dira anaikorrago: edozein manifestaziotan lelo bat nagusi: «Walen buiten!»; alegia, Kanpora waloniarrak!», ez baita, dudarik gabe, aberkideak goxoan hartzeko modu bat...

Bi herrien arteko muga, itxuraz hizkuntza-muga hutsa izanagatik ere, egiazko muga bat bihurtzen ari da, soziologiazko muga oso bat. Waloniar batzuk, esate baterako, Walonia'ko herri batetik bestera joaterakoan, flamenkerazko barrutietatik pasa nahi ez izanik, itzul-inguru bat egitea nahiago dute. «Frankofono»anitzek, gero eta gehiagok, Frantzia'ra jotzen dute udaran, eta iñolaz ere ez «menapiens» zozo horiengana. Flamendarrek, era berean, Brusela'n beren burua arrotz atxemanik, Amsterdam nahiago dute.

Bi ethnien arteko alkartasuna amaitua dagoela esan diteke, edo hor nunbait; eta, hau gertatuz, soluziotzat presentatu ohi zan erresuma «bikoitza», pikutara joaten ari dala. Gauza bera Kanada'z esan liteke.

Federalismoa proposatzen da herabeki, gero eta gehiagotan; eta kanpotarrari gauza agiria zaio soluzio hau baizik ez dala gelditzen: federalismoa, ala bien herrien berezte osoa, gero Fraintzia'ri bata eta Holanda'ri bestea erantsiz. Partidu zaharrek, halere, ekonomismoan murgildurik, ekonomiatik kanpo ezer sakonik ez ikusiz, «talde nahastale eta txiki» batzuen egiña baizik ez dute ikusten; eta, funtsean, gaurko batasunari heldu nahi diote. Flamendarren eta waloniarren arteko ezin-konpontzea, ordea, sakontzen ari da. Eta itsu batek ere ikus dezake Belgika ezagutzean, orain dagoen erresumak ez duela luzaz iraunduko; eta ez-ikusia egiteak ez duela problema zornatu eta gaistatu baizik egingo.

LARRESORO

MARIO BRICEÑO PEROZO·REN "MIRANDONIANAS"

Orain baño len, benezuelatar Mario Briceño Perozo'ren izena gure ZERUKO ARGIA'ren orrialdetan azaldu da.

Bere errian, Briceño Perozo da, gaur egunean, kondalari eta bizitzidazle onenen bat. Orain urte pare bat, Olabarriaga euskalduna'ren bizitzari buruz liburu eder bat argitaratu zuan gure adiskide ospetsu onek. Eta liburu ori txit ongi onartuta zala gure artean zer esanik eztago. Bereziki, euskal irakurleak konturatu ziran Briceño Perozo'ren idaztia, begi onez idatzita zegoalako. Con amore, Italiandar batek esango luke bezela.

Oraingo liburu ontan, Venezuela'ko jeneral Miranda'ren irudi berri bat erakusten digu gure idazleak. Eta bere bizimoduaren ez-ezagun gorabera asko ere bai. Gaur arte, jeneral Miranda'ren nortasuna ondo ezagutzen genuala danok uste genuan. Agintari erromantiku, ausarta eta jakindun bat. Besterik ez. Baña bere gizatasunak beste alde batzuk eskeintzen ditu. Briceño Perozo trebeak aren bizitzan da norberetasunean sakondu egin du. Eta bere liburua irakurri ondoren, beste Miranda'ren irudia degula altortu bear degu. El Precursor —Venezuela'n diyote bezela— jaun-aundi eta aipagarria izan zan. Eta bere aberria asko maite izan zuana.

Benetako zorionak bialtzen dizkiogu gure benezuelatar euskaltzale egilleari.

MIGEL PELAY OROZKO

EUSKERAK LEKURIK EZ

Orain aste gutxi, Gipuzkoako Gol-errian zan. Emakume bat eta ni Euskal-errian zear dabillen autobus baten zai. Etorri da autobusa. Kobradoreak, gu maletakin ikustean, ¿«A dónde van»? galdetzen digu. Emakumeak une berean, galdera entzun gabe, maleta ematen dio:

—«Poliki ipiñi, arrautzak daude ta».

Kobradoreak berriz esarre:

—«Hable usted en castellano, que es una falta de educación hablar en vascuence cuando...».

Emakumeak irriparrez, baña barrutik minduta noski:

—«Oiga; estamos en Tierras Vascas».

Autobusean sartuta, minutu asko pasa nituan gertakizun orretzaz pentsatzen. Euskaldunok geure errian euskeraz itz egiteko eskubiderik ez al degu? Salamankan edo, izan balitz... utsa. Baña geure errian euskeraz itz eginda, falta de educación dala entzun bear! Eta, ez al du ba bear oso beste aldera? Euskeraz itz egiten dan errietan, «servicio público»n dauden gizon-emakume danak euskeraz jakin bear luteke. Nik belntzat, era ortan autobusetako jabeari idatzi nion. Falta de educación, eta galanta, Kobradorearena izan zala esanaz. Ainbeste euskaldun dabiltzan autobusean, kobradoreak euskeraz ez jakitea, lotsagarria da. Kobradorea lotsatu bear luke gure izkuntza ez ezagutzean, baña bere ordez gu lotsatu bear.

Oituta gaude dendetan, tabernetan autobusetan, estazioetan eta ainbeste tokietan erdeldunak ikusten, eta ondo iruditzen zaigu. Euskera oñazpian ikusteko oiturak ontara eraman gaitu. Euskaldunak bere errian euskeraz itz egiteko eskubiderik ez izatea, ontzat ematen degu. Eskubidea? Bai, ori baduala altortu arren, ainbat eta ainbat tokietan euskerak lekurik ez du; au da, eskubiderik ez du, eta ontzat ematen degu. Noiz arte egoera au? Noiz izango ditugu ure errietako maixu, sekretario, lege-gizon, sendagile ta abar, euskaldunak? Beste errietan, gizartearekin artu-emanak dituztenak, erri oietako izkuntzan mintzo dira: Prantzian prantz-eraz, Gaztel-errian gaztel-eraz eta orrela gañontzekotan ori bidezkoa dalako.

Eta ez al da bidezko eta egoki gizon oiek Euskal-errian euskeraz egitea?

PATXI AUZMENDI

Zeruko Argia
Zuzendaria:
ANTONIO ITURRIA ASTIAZARAN
Naparroko-Kantauriko ta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua
(Carlos III, 22. Pamplona)
DONOSTIA'n:
Oquendo, 22: Telf. 26666
ARPIDE-SARIA:
Urtekoa . ... 190 Pta.
Atzerrian ... ... 265 »
Aldez artu nai bada, galdetu.

ARATE - OPARIAK
JATONTZI TA MAI - TRESNAK
Victor Pradera, 2
Urrutizkiña: 25700 DONOSTIA

Baserriaren alde
EUSKAL ETA ERDAL



Caja de Ahorros
Municipal de San Sebastián
Banen baneko aziyak
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak
Erosi edo berritzeko diru aurreratzea
Baserri, lur-tresnak ta abar
Torelavega'ko Perira joan etorriak.